

Josemari Velez de Mendizabal

Identitatea, pertenezia eta abar

Zenbat eta ahantziagoa dudan identitatearen kontzeptua, hainbat eta hurbilago sentitzen naiz beratik, zeinetaz —bestalde— ez dakit ezer. Auskalo zer idatzi dudan nik identitateaz azken urteotan! Hemerrotekek, seguru nago, lotsa apur bat sentiaraziko lidakete. Baina ez nau larregi kezkatzen, dakidalako —hain zuzen ere— kontzeptu irristakorretan ibiltzea ipurkada galantak jasotzeko loteriarik onena dela, eta nik —unean sentitzen dudana modu idatzian publikoki agertzeko zaletasun handiarekin— ohituta nago uneko sentimenduak enaraziriko ideiekin irristada ederrak emanda. Eta frogatua daukat erorketatik ostera jaiki ahal izateko indarrak ematen diotela bermea —eta balioa— ahaleginari.

Amerikako Estatu Batuetako gizarte poliformikoan isla genezake identitatearen gaineko adibiderik urtuena. Non datza estatubatuar izatezko mamia? Zein sakontasuneko identitateaz mintzatzen ari gara? Hamaika hiritar mota, hamaika jatorri desberdin baina oihu bakarra: gu estatubatuarra gara, beste edozein kalifikatiboren gainetik. Esentzialismoaz ahaztuta —zer den ere pentsatzen jarri ez direlarik, kasu gehienetan— mugak estu-estu dituen identitatearen aldeko jarrera identifikatzailean bat egiten dute, perteneziazko sentimendu linealarekin lerrotuz. Ikuspegi desberdinetik neurtzen dute pertenezia sentimendua Arkansasera heldu berri den siriarrak jatorriko norbanakoak eta zazpi belaunaldi Minnesotako herrixkatxo batean daramanak. Baina babestuta eta harro sentitzen dira estatubatuar maindirearen azpian, eta horrexek ematen die bi subjektu desberdinei kohesioa. Egia da ere, zenbat eta kohesioa biziago izan, inguruko ideia eta diskurtsoek intzidentzia handiagoa dutela gizarte hartan.



DANI BLANCO

Gure artean, gogo-muga distantziak oraindik txikiagoak daitezkeen arren, perspektiba diferentearekin ikusten dugu herriarekiko atxikimendua eta sentimendua batzuek eta besteok. Non datza, beraz, marra bereizleak? Ba al dago zubirik pertenezia aldea lotzeko? Garbi asko, zubiak antzematen ez dituztenek, nahi ez dutelako da. Pertenezia eman dezake, hiri beretsuan errolatuta egoteak, futbol ekipo berdineko jarraitzaile izateak, talde politiko berdinak... Baina baita eman dezake, pertenezia gogozko ariketa delako, nor beraren jarrerak ere. Orduan, luze hitz egin daiteke identitateaz, gure gizartearen luze eta zabal hitz egiten den moduan. Hitz egiten dela? Bai horixe! Ikusi besterik ez da egin behar, zenbat mugaketa ateratzen zaizkigun medioetan, liburuetan, gure arteko elkarrizketetan... apur bat arakatzuz gero. Zerk ematen digu, ordea, identitatea? Hizkuntzak? ADNk? Erlijioak? Zortzi abizenek? Estatuak? Horiak guztiek batera?

Begi bistakoa da gizarte multzoak —masak?— inguruko sinesmen eta iritziek baldintzatzen dituztela. Ezin gaitzek horietatik libra, eta gizaki bakoitzari dagokio noraino egiten dien men kanpo indar eragileei. Askatasun horretan baina, aldi berean, askatasunaren ezerosotasunean eraiki behar du pertsona bakoitzak bere

talaia propioa identitatearen gaineko pertzepziorako. Bi norbanakoren artean egon daiteke ados %90ean baina gainerako %10ak pikutara bota dezake bien arteko erlazioa, identitate kontzeptuari begira jartzen direnean. Zergatik eta, mugaketa zehatzerako bilakuntza formula matematikoa ez delako, eta logika, kimika eta sentimenduak koktelontzian sartuta behin astinduz gero lortutakoak zapore desberdinak edukitzen ditu, esku eragilearen arabera.

Oharra: gaur ez nuen politikaz hitz egin nahi; ala bai? ■

Bi norbanakoren artean egon daiteke
ados %90ean baina gainerako %10ak
pikutara bota dezake bien arteko
erlazioa, identitate kontzeptuari
begira jartzen direnean